

Europa eta kristalaren parabola

HASIER ETXEBERRIA



URTEAK eta mendek behar izaten dira naturak kristal ederra egin dezan. Baldintzak zehatzak dira oso: materia konzentrazio handiak, presioa sekulakoa. Molekulak, norbere izatearen arabera bata bestearen ondoan egoki jar daitezten, baldintza onenak eman beharko dira gehorba oso luzean. Hala izan ezean alferrik da. Kristalik ez da izango. Ez gardenik eta ez bestelakorik. Geologian *presipitazio amorfoso* deitzen diote kontrako gertakizun baldar hori.

Baina kristalik ederrean oso argi ditu gauzak: gardenak eta garbia izango bada, molekula bakoitzak dagokion berezko leku naturalean beharko du egon.

Europa ere kristal bihurtu nahi du aspalditik. Presioak ugari dira, batez ere azken urteotan eman den ekonomiaren munduzabalteak ekarri dituenak. Alferrik da borondate onenaz Plaientziako garaje batean tonu zahar bat erosita lanean jartzea. Halako kontu aspaldi joan jeren Taiwan aldera hegaka, aurki software sistimen Indiar, Txinara, noranahi, joango diren bezala. Garestiegia bihurtu gara lanerako. Arima Bakarreko Diru Haundiak begi zorrotzez aurkitzen ditu langile merkeagoen merkatuak, berdin dio non.

Europako kristala eraikitzea da irtenbidea, baina horretarako molekula bakoitza bere lekuan behar. Nola ordea? Italian, Espainian, Frantzia, Britainia Handian...denean daude sukalde demokratikoaren platerak pitzatuta. Alemanian hartzak ere badu nahiko lan negurako ezta bilatzen. Gainera berrak guztietako herri ezberdinek hain anarkonikoa omen den estatuan, bakarrak ikusten dute errespeturako irtenbidea.

Kristal bat egin behar da superbizipenerako, bestela Mc Donaldek jango gaitu Sonyren mikroinhetan frijtituta. Bai Monsieur Delors, Europa behar da, baina argi ibili *presipitazio amorfoso*ekin. Historiaren haizeak eraman dezakeen hauts mehea egitea errazgoa baita, benetako kristala sortzea baino.

Hautaketak

TXILLARDEGI



HEGOAL-DEARI dagokionez, hiru sare daude gaur egun unibertsitatearen alorrean: Bat, 'publikoa' (gaizki esana, estatala baita izan). Bi, 'pribatua' (Elizarena funtsean), eta hiru, UEU deitutakoa, benetako Unibertsitatea ez dena, irakurleak ongi dakienez. Lehenengoa bikuna da. UPV delakoa batetik eta UPN delakoa bestetik. Eta bigarrena ere bikuna. Jesuitena batetik eta Opuatarrena bestetik. Zer egin nahaste-borraste hori batzeko eta homologatzeko? Aldez aurretik, irakaskuntza pribatuaren kontrakoa naizela esango dut, karrera ikastea ordaindu behar bada, irakaskuntza gorena dirudunen eskuetan jartzea delako, eta demokraziaren suntsiera horretantxe hasien da. Unibertsitate Pribatuari beraz, ez. Hortaz, gora Unibertsitate Publikoa? Bai, baina... (Eta hemen dator espainolstek behin eta berriz ahazten duten 'baina' hori). Hegoaldean gaur eta lege marko famatu hau aldatuko ez deno, Unibertsitate Publikoa unibertsitate estatala da, garbikiago esanda unibertsitate espainola. Zer gerta ote dagukue onik eta zer txarrak unibertsitate horretan? Ezaguna da: LRU, LOGSE, LODSE eta abarren bidez Euskal Unibertsitate errota eratuzea eta hiltzea. Legea eskutan, gainera, legetasun osoan. Gauzak horrela zuhurra ote litzateke UEU mikro-unibertsitateak bestearen baruruan gosaltea? Bide beretik zuhurra izan ote da ikastola espainiar legetasunaren mugetan gosaltea? Ez eta ez, nik uste. UEU gaur egun osoki normalizatzea zuhurra ez litzatekeen bezala. Rekalde, Buesa, Barbera eta abar lekuko, lege marko honen baruruan lotura eta homologazio gutxiago eta hobe.

● egin

Nafarroa, zain

Aurtengo Aurrekontu proiektuaren eztabaidarako hiru egun falta direnean, berezia da Nafarroak bizi duen egoera politikoa. Hauteskunde aurreko tentsioek eta interes alderdikoiek itxuragabetu egiten du eztabaidak sakonean izan beharko lukena: Aurrekontuak benetan baliagarri izatea herrialde horretako biztanlegoaren beharrak bete eta hobetzeko.

Gizarte indarrek, sindikatuek, enpresariak... hainbat ikuspegitik azaldu dute berrunburutasuna egoeraren aurrean. Etengabe aldatzen ari diren gizarte beharrei erantzun diezaieketen Aurrekontu batzuk edukitzeko premia ezin da hauteskunde aurreko kampanian lurperatuta gelditu alderdien interesen gorabehera eta jukutrien ondorioz. Hortik

H E M E R O T E K A



FERRERES / LA VANGUARDIA

dator arazoaren mamia ongi zehaztu eta laster baina sendo konpontzeak duen garrantzia.

EDITORIALA

● Navarra hoy

Jarraikortasuna UPNko zerrendetan

Ez dirudi UPNk Diputatu Kongresurako hurrengo hauteskundeetan bere zerrendan izen berriak sartzeko asmorik

duenik. Aizpun eta Del Burgo berriro ere ager daitezke zerrendaburu. Eta aukera horrek badu bere logika. Alderdian gehiengo dute berritzaileek ez dute, alde batetik, gehiegizko interesik hauteskunde hauetan. beren joranak Nafarroan daudelako. Bestetik, Madrilen alderdiko lehendakaria izatea, era horretan horri UPNren baitan duen tokiaren araberrako kargu politiko bat eskainiz, eta gauza bera egitea PPTik hurbil dagoen sektorearen ordezkariarekin, horren bi-

dez hori Nafarroatik urrunago izateaz gain bide batez Azznaren alderdiarekiko itsurak gordeko bailirateke, estrategia logikoa da.

Baina badaude argudio gehiago, aukera hori egiaztatzen dutenak: UPNko zerrendaren emaitzak onak badira, Alliren jarraitzaileek beti esan ahal izango dute neurri handi batean horiek foru Gobernuaren gestioaren ondorio direla, eta txarrak badira zerrendaburuaren nortasun politikoiari edo PPren kanpaina nazionalari egoztoke aukera izango dute, eta, aldi berean, izendatuek, beren aldetik, beti ere justifikatu ahal izango dute hauteskunde-balantze txar bat Alliren gestioak utzitako zamaren ondorioztat hartuz, hala nola emaitza on bat beren planteamenduek lortutako babestaz azalduz. Hortaz, estrategien batzea. Nahiz eta UPN-n ezin diren inoiz ere ustegabeak baztertu.

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Ardanzari baldintzak

Krisi ekonomikoaren aurrean, Pakto Sozialerako deia eta baldintzak argitaratu berri dituzte. Ezer baino lehen, hemen Ezkerraldean, zuk 'krisia' dertizozun horri, *eraijspen* (desmantelamendu) *ekonomikoa* deitzen diogula argitu nahi dizut. Gu pobreak gara, baina pluralak eta irekiak ere bai; ez gara fidagaitzak baina leloak ez dugu izan nahi. Horregatik, benetan *eraijspen ekonomikoaren aurka* jardun gura baduzu, hemen desagokiz gutxieneko baldintza batzu:

— Lanpostu bat desagertu baino lehen beste bat eraikitzea.

— Martxoaren 5eko Greba Orokorrean burubelarri parte hartzea eta ahaletik egitea, zeuk eta zeure Alderdi eta Gobernuak, Greba Orokorra izan dadin.

— Euskal Herriaren burujabetasunaren alde tinko jardutea; gerorako luzatu edo Europar lortuko dugula esatea, hamar urte hauetan, Herria engainatzeko darabilkizuen gezurra dela aldarrikatzea.

— Hilean 150.000 pezetakin pasatzen ikastea. Ezkerraldean eta Euskal Herrian, familia askok pasatzen dute gutxiagorekin.

— *Eraijspen ekonomikoa eta langabezia* Kapitalismoaren eta Estatuaren indarkeria direla eta beraz *pakea* oztapatzen dutela, lau haizeetara zabaltzea.

— Langabezia dauden gutziet, zuek kobratzen-lapurtzen diezuenaren % 15-20 ordaintzea. lanpostu bat eskeini arte.

— Onartzen badituzu, pozik eta besozabalik onartuko zaitugu; bat gehiago izango zara. Martxoaren 5ean Ezkerraldera etortzeko asmorik bazenu, ez zaitetz etorri 50 milioi pezetako kotxez. Arriskutsua izan daiteke eta.

JOXE GOIKOETXEA

Barakaldo (Bizkaia)

Autodeterminazioaz

Mercedes Milak orain dela aste batzuek nazionalismoei buruz aurkeztutako pro-

grama hura ikusi ondoren ondoko hausnarketak bururatzten zaizkit:

1. Autodeterminaziorako eskubidea, alegia, herri batek bere kabuz eta askatasun osoz gura duen etorkizun erabakitzeko ahalmena, hain da oinarritzak ezen egunero eskubide hori erreibindikaten aritzeak ez moztetako estatu 'demokratikoan' gaudela erakusten baitu.

2. Programako jendearen erreakzioak ikusita, gonbidatuek beren burua espainiar sentitzen ez zutela azaldu zuten unetan, zeharo argi dago ez nolako eginahalak egin behar ditugun oraindik gizakiok elkarri konprentitzeko.

Ez da harritzekoa, beraz, Euskal Herriko arazo nazionala gaur egun dagoen egoeran ikustea: gorrotoa nagusi, hildakoak, zapalketa kulturala, etab. Honek bai duela esangura Estatu espainiarrek euskaldunenganako duen jarrera aztertzerakoan.

JUAN LUIS FERNANDEZ

Algorta (Bizkaia)

GAIA JARRITA



Rock eguna

Ezpeleta herrian gaur da 'rock eguna', beltzez etsaia izan aire ezaguna. Euskadin entzun dadin horren oihartzuna, intsumisioen alde eman erantzuna, Ezpeleta aldera hurbildu laguna.

NAGORE FERNANDEZ

Egunkaria

Batzorde Patekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

GUDREN IKUSKATZEA BIDERATUA	
Administratze Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE	
Kontseiluko Editoreak: JOAN MARI TORREALDUA	
Gerenete: FERMIN LAZKANO	
Zuzendaria: ISAKI URÍA	
Zuzendariordeak: LUZIAN ETXEZAHARRETA	
Zuzendari Komertzialak: JUAN INAZIO HARTSUGA	
Sustapena: NEREA AZURMENDI	
Publizitateak: MARI JOSE SARASA	

HELBIDEAK
Erredakzio eta Talenteak: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioak: Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Arabak: San Antonio, 20-1 ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroak: Iratxe Monastegia, 45-13 esk. / (Irritzi dorrea) / 31011 Iruña / ☎ 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1 eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Behere / Zuberoa: 503 Posta kutxatila, / 64105 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11